



JENDAURREAN EGOTEKO TRAMITEA

Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legea aldatzeko aurreproiektua.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren uztailaren 4ko 104/2017 Foru Aginduaren bidez hasiera eman zitzaion Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legea aldatzeko aurreproiektua egiteko prozedurari.

Araua tramitatze lehen fasean, aldez aurreko kontsultarako dokumentua prestatu zen, honakoak jasotzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoarekin bat: konpondu gogo ziren arazoak, onesteko premia eta egokitasuna, arauaren helburuak eta balizko konponbide alternatiboak. Aldez aurreko kontsulta herritarren parte-hartzerako prozesu bat izan da, Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu baita 2017ko uztailaren 6tik abuztuaren 23ra bitarte, herritarren ekarpenak, iradokizunak eta iritzia biltzeko asmoz. Kontsultan ezarritako modu eta bitartekoak erabiliz ez da inolako ekarpenik aurkeztu ordea, eta beraz, araua tramitatzeko prozeduraren fase hori itxi da.

Ondoren, aldaketaren testu artikuluduna prestatu ondoren, hasiera eman zitzaion jendaurreko aldiaren tramiteari Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuz, eta horrekin hasi zen iradokizunak eta ekarpenak aurkezteko epea. Jendaurreko aldi hori amaituta, ez da inolako iradokizunik eta/edo ekarpenik aurkeztu, eta beraz, tramitea amaitutzat eman behar da.

**BARNEKO ARAUBIDE JURIDIKOAREN
ZERBITZUKO ZUZENDARIA**